

Banatzailak/Agenteak bete beharreko datuak / Datos a rellenar por el Distribuidor/Agente

Izena eta Abizenak: Nombre y Apellidos:	Kontratu-zk.: Nº de contrato:
Salmenten indar-kodea: Código Fuerza de Ventas:	Promozio-zk.: Nº de promoción:
	Eranskin-kopurua: Nº de anexos:

ZURE ADOSTASUNA / SU ACUERDO

Kontratu honen bidez, hurrengo atalean agertzen den pertsona fisikoak/juridikoak (bezeroa) EUSKALTEL S.A.ren Enpresentzako Musika Zerbitzua kontratatzen du, kontratu honetan eta haren atzeko aldean zehazten diren baldintza orokorretan ezarritakoaren arabera. Aipatu baldintzak osotasunean ezagutu eta onartzen ditu bezeroak.
 Por medio del presente contrato, la persona física/jurídica cuyos datos se recogen en el apartado siguiente (el cliente) contrata el Servicio de Música para Empresas, prestado por EUSKALTEL SA, según lo dispuesto en el presente contrato y en las condiciones generales que figuran al dorso, las cuales conoce y acepta en su integridad.

En _____ -(e)n, a _____ -(e)ko de _____ (a) ren de _____ -(e)an

Bezeroaren/Enpresaren ordezkariaren sinadura eta zigilua NAN: / DNI: [] [] [] [] [] [] [] [] [] []
 Firma del cliente/Representante y sello de la empresa

EUSKALTEL, S.A.ren aldetik: / Por EUSKALTEL, S.A.:



Alberto García Erauzkin
 KONTSEILARI-ZUZENDARI NAGUSIA
 CONSEJERO - DIRECTOR GENERAL

BEZEROAREN DATUAK / DATOS DEL CLIENTE

Enpresaren izena: / Nombre de la empresa:	IFK: / CIF:	
Kalea eta zenbakia: / Calle y número:		
Herria: / Población:	Probintzia: / Provincia:	Posta-Kodea: / Código Postal:
Telefonoa: / Teléfono:	Faxa: / Fax:	h.el.: / e-mail:
Kontratatzeko baimena duen pertsona: / Persona autorizada a contratar:		Telefonoa: / Teléfono:
IFZ: / NIF:	Kargua: / Cargo:	EJZ sektorea: / Sector I.A.E:
Eratze-data: / Fecha de constitución:	Kapital Soziala: / Capital Social:	Langileak guztira: / Plantilla total:
Fakturazioa: / Facturación:		

ZERBITZUAREN DATUAK / DATOS DEL SERVICIO

<input type="checkbox"/> 100 m ² arte / Hasta 100 m ²	<input type="checkbox"/> 200 m ² arte / Hasta 200 m ²	<input type="checkbox"/> 500 m ² arte / Hasta 500 m ²	<input type="checkbox"/> 1.000 m ² arte / Hasta 1.000 m ²
---	---	---	---

INSTALAZIOAREN DATUAK / DATOS DE LA INSTALACIÓN

Bezeroaren datuak atalean jasotako berak ez badira bakarrik bete. / Rellenar únicamente si son distintos a los recogidos en el apartado datos del cliente.

Enpresaren izena: / Nombre de la empresa:	IFK: / CIF:	
Kalea eta zenbakia: / Calle y número:		
Herria: / Población:	Probintzia: / Provincia:	Posta-Kodea: / Código Postal:

ORDAINTZEKO MODUA / FORMA DE PAGO

Banku-helbideratzea / Domiciliación Bancaria <input type="checkbox"/>	Dirutan: / Pago Metálico: <input type="checkbox"/>			
Banku-helbideratzea aukeratzen baduzu, bete datu hauek: / En caso de elegir la domiciliación bancaria rellene los siguientes datos:				
Banku-kontuaren titularrak: / Titular de la cuenta bancaria: _____	NAN: / DNI: _____			
Banku-entitatea: / Entidad bancaria: _____	Kalea eta zenbakia: / Calle y número: _____			
Herria: / Población: _____	Probintzia: / Provincia: _____	Posta-kodea: / Código Postal: _____		
Bezeroaren kontuaren kodea: / Código cuenta cliente: [] [] [] [] [] [] [] [] [] []	Entitatea / Entidad [] [] [] [] [] [] [] [] [] []	Sukurtsala / Sucursal [] [] [] [] [] [] [] [] [] []	KD / DC [] [] [] [] [] [] [] [] [] []	Kontu-Zenbakia / Número de Cuenta [] [] [] [] [] [] [] [] [] []
Aipatu banku-entitateari baimena ematen diot EUSKALTEL, S.A.k aurkeztutako ordainagiriak goian adierazitako kontutik ordaintzeko. Autorizo a la entidad bancaria mencionada a pagar de mi cuenta arriba indicada los recibos presentados al cobro por EUSKALTEL, S.A.				
En _____ -(e)n, a _____ -(e)ko de _____ (a) ren de _____ -(e)an				
Kontuaren titularraren sinadura Firma del titular de la cuenta				

CONDICIONES GENERALES DE LA SUSCRIPCIÓN AL SERVICIO DE MÚSICA PARA EMPRESAS DE EUSKALTEL

1. Por el presente contrato, el CLIENTE contrata el servicio de Música para Empresa prestado por EUSKALTEL.

La suscripción tendrá una duración mínima de un mes.

2. Mediante la formalización de este contrato, EUSKALTEL se obliga a la prestación del servicio con los niveles de calidad que ésta determine y que serán como mínimo los exigidos por la legislación vigente, sometiéndose tanto EUSKALTEL como el CLIENTE a lo establecido en el presente contrato, así como a las tarifas vigentes en cada momento para el servicio.

3. El Cliente se compromete a que los datos facilitados por el mismo en la carátula del presente contrato sean ciertos siendo el Cliente el único responsable de la exactitud de los mismos.

4. El abono al servicio es personal y sólo podrá cederse con el consentimiento expreso de EUSKALTEL, formalizándose un nuevo contrato.

5. El CLIENTE no podrá conectar o acoplar a la red o a los equipos instalados por Euskaltel. S.A. elementos de su propiedad salvo que dispongan de los correspondientes certificados de homologación y cumplimiento de las especificaciones técnicas exigidos legalmente.

6. El CLIENTE necesita un Terminal Digital y los accesorios que serán facilitados por EUSKALTEL al CLIENTE a través del personal de Euskaltel o de sus empresas colaboradoras.

La fecha de inicio del arrendamiento será la misma que la del alta del servicio, y la fecha de finalización coincidirá con la de la baja en la suscripción a EUSKALTEL.

El CLIENTE no adquirirá en ningún momento la propiedad del material entregado ni podrá cederlo o entregarlo a terceras personas de ningún modo.

El CLIENTE se compromete a no manipular y a no efectuar ninguna intervención, transformación o modificación técnica sobre el material entregado.

El CLIENTE es responsable de los daños producidos a terceros por el uso anormal o inadecuado del material entregado. En caso de pérdida, deterioro, sustracción, robo o destrucción del material entregado, el CLIENTE deberá informar a EUSKALTEL, en el plazo máximo de 48 horas, y justificarlo debidamente. EUSKALTEL se reserva el derecho a exigir al CLIENTE una indemnización correspondiente a los gastos de reparación del material facilitado o la totalidad del valor de sustitución y los gastos de desplazamiento, ya sea el CLIENTE o persona sometida a su potestad familiar o tutelar o que con él habitualmente conviva, la causante del daño.

7. En el caso de cualquier actuación que afecte al servicio por parte del CLIENTE que conlleve perturbaciones en la explotación de la red o cause daños a terceros, EUSKALTEL se reserva el derecho a suspender el servicio o denunciar el presente contrato, sin perjuicio de las indemnizaciones derivadas de cualquier acción por daños y perjuicios.

8. INSTALACIÓN DEL SERVICIO

a) EUSKALTEL establecerá la conexión al servicio en el plazo de dos meses desde que se den las necesarias condiciones objetivas para la realización de la instalación.

b) La instalación del servicio y equipo en el domicilio del CLIENTE se realizará razonablemente según sus deseos, aunque por razones técnicas EUSKALTEL se reserva el derecho a determinar en función de las mismas la ubicación de los puntos de conexión y el trazado de los cables

c) EUSKALTEL procurará causar las mínimas molestias posibles durante la instalación del servicio y equipo y se compromete a subsanar cualquier daño que pudiera ocasionar.

Una vez realizada la instalación, el CLIENTE firmará el correspondiente Documento de Conformidad de la instalación.

9. El CLIENTE facilitará, en horas hábiles, el acceso a su domicilio del personal de EUSKALTEL o de sus empresas colaboradoras, debidamente autorizado e identificado por aquélla, con el objeto de verificar el cumplimiento por parte del CLIENTE de todas las obligaciones estipuladas en estas condiciones generales, así como para efectuar altas, modificaciones, inspecciones de la instalación, localización o reparación de averías, comunicándole las anomalías que observe en el plazo más breve posible. Asimismo facilitará el acceso a fin de retirar, si fuera necesario, el material a la fecha de terminación del contrato y en cuantos casos proceda, legal o contractualmente

10. EUSKALTEL cobrará al CLIENTE por la prestación del Servicio Contratado las tarifas que en cada momento ésta tenga vigentes. EUSKALTEL comunicará oportunamente y con anterioridad a su entrada en vigor cualquier modificación de dichas tarifas. El CLIENTE recibe junto con el presente contrato una hoja que contiene las tarifas vigentes para la prestación del servicio.

EUSKALTEL facturará según consta en las condiciones de pago expresadas en la carátula, al CLIENTE la cantidad que éste deba abonar a aquélla por la prestación del servicio de conformidad con las tarifas vigentes en cada momento. Las tarifas vigentes se incrementarán con los impuestos que en cada caso resulten

legalmente aplicables. La factura de EUSKALTEL detallará los distintos componentes de la tarifa final a abonar. El CLIENTE deberá satisfacer a EUSKALTEL las siguientes cantidades:

- Cuota de alta
- Cuota mensual fija.
- Arrendamiento del Terminal Digital.

El pago se realizará por el CLIENTE mediante domiciliación bancaria de las facturas en la cuenta bancaria que el CLIENTE ha indicado en la carátula, comprometiéndose el CLIENTE a mantener siempre saldo suficiente en dicha cuenta para atender el pago de las cantidades debidas a EUSKALTEL o a través de pago en ventanilla. La fecha en que se debe de realizar el pago será aquélla en la que la entidad de crédito en la que esté abierta la cuenta bancaria reciba la notificación de EUSKALTEL con el importe de las cantidades a abonar por el CLIENTE. En caso de pago en ventanilla el CLIENTE deberá realizarlo en el plazo de una semana (7 días) desde que éste reciba el documento de cargo.

El CLIENTE deberá abonar la cuota de alta en la primera facturación del servicio realizada por EUSKALTEL. Asimismo satisfará por periodos vencidos, el pago de las cuotas mensuales fijas según el servicio contratado, así como el arrendamiento del Terminal Digital.

11. El CLIENTE pagará una cuota de alta a EUSKALTEL en el momento de la firma de este contrato. Si el CLIENTE decidiese darse de baja o no renovar la suscripción a EUSKALTEL, no podrá reclamar la devolución de su importe.

En caso de nueva alta del servicio el CLIENTE pagará una cuota de reconexión

12. El impago por parte del CLIENTE a EUSKALTEL de las cantidades debidas por la utilización del servicio en la fecha en que se deba realizar el pago, debido a causas no imputables a la entidad de crédito, implicará la obligación para el CLIENTE de pagar intereses de demora, sin perjuicio de las demás consecuencias que pudieran derivar de su incumplimiento.

El interés de demora se devengará desde la fecha en que el pago debió realizarse, siendo dicho interés el interés legal del dinero más dos puntos porcentuales. Igual interés de demora se aplicará para el caso de que, como consecuencia de una reclamación, el CLIENTE tenga derecho al reintegro de alguna cantidad.

13. EUSKALTEL podrá dejar de prestar el servicio al CLIENTE por la demora en el pago de un plazo superior a veinte días naturales desde la fecha de presentación o puesta al cobro del documento de cargo cuyo impago determina la suspensión.

La suspensión del servicio no podrá realizarse en día festivo ni en víspera del mismo.

EUSKALTEL restablecerá el servicio al abonado dentro de los dos días laborales siguientes al día en que tenga conocimiento de haberse satisfecho el importe que se le adeuda. El abonado deberá satisfacer la cuota establecida para la rehabilitación, salvo que demuestre que no le es imputable el impago.

Transcurridos veinte días naturales desde la suspensión del servicio, y previo requerimiento al abonado concediéndole un plazo de diez días para satisfacer la deuda, EUSKALTEL podrá resolver el contrato y dar de baja al abonado.

14. El Terminal Digital se entrega por EUSKALTEL al CLIENTE en concepto de arrendamiento. El resto del material es cedido en régimen de comodato para su uso hasta la finalización del presente contrato y con carácter gratuito

La fecha de inicio del arrendamiento será la misma que la del alta del servicio, y la fecha de finalización coincidirá con la de la baja en la suscripción a EUSKALTEL.

El CLIENTE pagará a EUSKALTEL por el arrendamiento del Terminal Digital la cantidad establecida en el presente contrato, precio que se podrá modificar por EUSKALTEL previa notificación al CLIENTE quince días antes de su aplicación. Para todo lo no establecido en el presente contrato será de aplicación la legislación común que regula los arrendamientos de bienes muebles.

15. En caso de mal funcionamiento o de una posible avería se aconseja al CLIENTE que contacte telefónicamente con EUSKALTEL. Si no se alcanzase una solución satisfactoria de manera telefónica, EUSKALTEL enviará al domicilio del cliente personal propio o personal técnico homologado para que identifiquen la causa de la avería.

La comprobación, reparación o en su caso cambio del equipo o del material entregado, por avería no imputable al CLIENTE será gratuito, y no comportará ningún tipo de coste para el CLIENTE.

En el caso de que la avería sea imputable al CLIENTE, los costes que se generen por el desplazamiento e intervención del personal de EUSKALTEL, y en su caso por la sustitución de los equipos o resto de material entregado, serán con cargo al CLIENTE de acuerdo con los precios fijados por EUSKALTEL que, en su caso, le serán comunicados al CLIENTE.

Al finalizar la suscripción por cualquier causa, el CLIENTE deberá devolver la totalidad del material entregado por EUSKALTEL al personal de EUSKALTEL o cualquier empresa colaboradora o en los locales de los Distribuidores/Instaladores autorizados

Si, a requerimiento de EUSKALTEL, éste no recibiese el material entregado en dicho plazo, el CLIENTE deberá indemnizar a EUSKALTEL con el coste de reposición, por la retención indebida del material entregado.

16. EUSKALTEL se compromete a adoptar las medidas necesarias para asegurar la permanencia, continuidad y calidad de la prestación del Servicio Contratado. EUSKALTEL se reserva el derecho a modificar la composición de la programación. Los canales anunciados, así como los contenidos del servicio propuesto, podrán ser suprimidos, sustituidos o modificados en su totalidad o en parte. EUSKALTEL podrá suspender temporalmente la prestación del servicio en los casos en que sea necesario el reajuste de los canales contratados. Todos los supuestos previstos, serán notificados con la suficiente antelación y no afectarán a la línea de programación del Servicio Contratado.
- En caso de que el Servicio Contratado por el CLIENTE se vea interrumpido durante al menos 3 días consecutivos y en tanto en cuanto no se de ninguna de las circunstancias descritas en el siguiente párrafo, EUSKALTEL se compromete a resarcir al CLIENTE mediante una compensación en servicios equivalentes al importe que correspondería al Servicio Contratado no recibidos, siempre que así lo haya solicitado por escrito el CLIENTE.
- EUSKALTEL no será responsable de la interrupción del Servicio Contratado en los siguientes supuestos:
- Cuando se produzca como consecuencia de la mala o inadecuada utilización por parte del CLIENTE de los equipos entregados por EUSKALTEL.
 - Cuando se produzca como consecuencia de supuestos de fuerza mayor, como tormentas, incidencias meteorológicas, etc.
 - Cuando se produzca como consecuencia de decisiones administrativas o judiciales que afecten a EUSKALTEL.
 - Cuando tenga su causa en ocasionales interrupciones de \pm 10 minutos.
 - Cuando se produzca por los supuestos previstos en el párrafo segundo.
 - Cuando se produzca como consecuencia de la actuación de terceros.
17. El presente contrato se celebra con duración indefinida y se resolverá por las siguientes causas:
- a) Extinción del título que habilita a EUSKALTEL para la prestación del servicio, sin que de ello se derive derecho del CLIENTE a indemnización alguna.
 - b) Se resolverá por cualquiera de las partes por incumplimiento por parte de la otra de las obligaciones que se prevén en el presente contrato.
 - c) Por voluntad del CLIENTE comunicándolo previamente y de forma fehaciente con una antelación mínima de quince días.
 - d) Por cambio de domicilio del CLIENTE cuando EUSKALTEL no tenga implantada la red en el mismo.
 - e) Por inexactitud de los datos facilitados por el Cliente en la carátula del contrato.
- En caso de que el CLIENTE no haya remitido a EUSKALTEL el ejemplar correspondiente del presente contrato debidamente firmado, en un plazo de 10 días desde que lo recibió, EUSKALTEL estará facultado para desistir de dicho contrato, con su consiguiente pérdida de vigencia.
- En ningún caso, la resolución o el desistimiento del presente contrato exonerará al CLIENTE de sus obligaciones de pago frente a EUSKALTEL derivadas de la utilización del servicio hasta el momento en el que se produzca la efectiva desconexión del CLIENTE del servicio objeto del contrato, consecuencia de dicha resolución o desistimiento, incluido el valor del material entregado.
- La no devolución del material entregado una vez resuelto el contrato, dará derecho a EUSKALTEL a realizar cuantas actuaciones precise para su recuperación, comprendiendo entre ellas las acciones judiciales, civiles o penales procedentes, así como al cobro de la indemnización prevista en la condición 15.5 anterior.
18. El CLIENTE reconoce haber sido informado por EUSKALTEL de la existencia de un fichero automatizado de datos de carácter personal creado por EUSKALTEL y consiente expresamente su utilización, con la finalidad de realizar el mantenimiento y la gestión de la relación contractual con el CLIENTE, así como labores de información, formación y acciones de comercialización y publicidad de los servicios y productos de EUSKALTEL. Así mismo reconoce haber sido informado de la posibilidad de ejercitar los derechos de acceso, rectificación y cancelación de dichos datos en la sede social de EUSKALTEL o en el domicilio que ésta le indique; del hecho de ser EUSKALTEL la responsable del fichero, y del carácter obligatorio de contestar a los datos personales solicitados. Los datos solicitados son necesarios para la ejecución del contrato.
- EUSKALTEL se compromete al cumplimiento de su obligación de secreto de los datos de carácter personal y de su deber de guardarlos, y adoptará las medidas necesarias para evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado, habida cuenta en todo momento del estado de la tecnología.
- El CLIENTE consiente expresamente la cesión al canal de distribuidores o agentes que, en su caso, colabore con EUSKALTEL en la contratación del servicio, de los datos de carácter personal contenidos en el fichero automatizado, con la finalidad señalada en el primer párrafo, y salvo que el CLIENTE disponga expresamente lo contrario, EUSKALTEL podrá ceder los mismos a entidades de su grupo con la finalidad de remitirles información que considere de su interés.
- Asimismo el CLIENTE consiente expresamente la utilización de sus datos personales para la promoción comercial de los propios servicios y productos de telecomunicaciones que EUSKALTEL pretenda ofrecer; entendiéndose el consentimiento válido hasta que aquél lo deje sin efecto de modo expreso. Si en el plazo de un mes, contado desde la firma del presente contrato, el CLIENTE no se hubiese pronunciado respecto a esta cuestión, se entenderá que consiente.
19. El CLIENTE podrá presentar reclamaciones ante EUSKALTEL sobre el funcionamiento y calidad del servicio, aplicación de precios, facturación y cualquier otra cuestión que pudiera plantearse en relación con la prestación del servicio, en el plazo de un mes desde que se tenga conocimiento del hecho que las motive.
- Si en el plazo de un mes desde la formulación de la reclamación el CLIENTE no hubiera obtenido respuesta satisfactoria podrá dirigir su reclamación ante la Secretaría de Estado de las Telecomunicaciones y para la Sociedad de la Información.
20. El CLIENTE contrata con EUSKALTEL con sujeción al régimen que en cada momento establezca la normativa vigente española para la prestación de los servicios de telecomunicaciones objeto del presente contrato. El presente contrato podrá ser modificado por EUSKALTEL de conformidad con la legislación vigente y previa notificación escrita al CLIENTE. Si el CLIENTE no estuviera conforme con la modificación, podrá comunicar a EUSKALTEL su voluntad de resolver el contrato en un plazo de quince días desde que reciba la notificación, transcurrido el cual sin que EUSKALTEL haya recibido notificación alguna, se entenderá que el CLIENTE acepta las modificaciones.

EUSKALTELEN ENPRESENTZAKO MUSIKA ZERBITZUA HARPIDETZEKO BALDINTZA OROKORRAK

1. Kontratu honen bidez, BEZEROAK EUSKALTELeK ematen duen Enpresentzako Musika zerbitzua kontratatzen du.
Harpidetza gutxienez hilabetekoa izango da.
2. Behin kontratu hau formalizatuta, EUSKALTELeK behartuta dago zerbitzua adierazitako kalitate-mailetan (gutxienez indarrean dagoen legediak adierazitako mailetan) ematera. Horrez gain, EUSKALTELeK eta BEZEROAK kontratu honetan adierazitakoa bete beharko du, baita une bakoitzean zerbitzu honentzat indarrean dauden tarifak ere.
3. Bezeroak konpromisoa hartzen du kontratu honen azalean jartzeko emandako datuak egiazkoak izan daitezken, eta Bezeroa da haien zehaztasunaren edo zehaztasunik ezaren arduradun bakarra.
4. Zerbitzua jasotzen duenak berak ordaindu behar du; beste bati utzi nahi izanez gero, EUSKALTELeK horretarako baimena eman behar du eta kontratu berria egin behar da.
5. BEZEROAK ezin die bere jabetzako elementurik konektatu edo erantsi EUSKALTELeK S.A.k jarri dituen sare edo ekipoei, baldin eta horretarako behar dituen homologazio-ziurtagiriak eta legez eskatzen diren zehaztasun teknikoak ez baditu.
6. BEZEROAK terminal digital bat eta haren osagarriak behar ditu, eta EUSKALTELeK emango dizkio EUSKALTELeKO langileen edo EUSKALTELeN enpresa laguntzaileen bitartez.
Alokairua zerbitzuan alta ematen den egun berean hasiko da eta EUSKALTELeN baja ematean amaituko da.
BEZEROAK ez du inolara ere materialaren jabetza eskuratuko eta ezin die hirugarrenei eman edo utzi.
BEZEROAK konpromisoa hartzen du utzitako materiala ez maneiatzeko eta esku-hartze edo aldaketa teknikorik ez egiteko.
BEZEROA utzitako materiala modu ezohikoan edo desegokian erabiltzeagatik hirugarren pertsoneri sortutako kalteen erantzule da. Material hori galdu, hondatu edo deuseztatu bada edo lapurtua izan bada, BEZEROAK 48 ordu baino lehen EUSKALTELeLi horren berri eman behar dio eta behar bezala frogatu behar du. EUSKALTELeK eskubidea du utzitako materialaren konponketa-gastuei edo hura ordeztarearen balio osoari edo joan-etorrien gastuei dagokien kalte-ordainak BEZEROAri eskatzeko, baldin eta kaltearen erantzulea BEZEROA bera, haren familia-boterearen edo tutoretzaren pean dagoen norbait edo harekin bizi den norbait bada.
7. BEZEROAren ekintzaren batek zerbitzuan eragiten badu eta sarea ustiatzeko arazoak edo hirugarren pertsoneri kalteak sortzen badizkie, EUSKALTELeK zerbitzua eteteko edo kontratu hau salatzeko eskubidea du, kalte-galerengatik sor daitezkeen kalte-ordainak alde batera utzi gabe.
8. ZERBITZUAREN INSTALAZIOA
 - a) EUSKALTELeK bi hilabeteko epearen barruan jarriko du zerbitzuaren konexioa, instalazioa egiteko beharrezko baldintza objektiboak betetzen diren unetik kontatzen hasita.
 - b) Zerbitzua eta ekipoa bezeroak nahi duen moduan jarriko dira BEZEROAREN etxean; hala ere, arrazoi teknikoak direla bide, konexio-puntuak non jarri eta kableak nondik nora eraman erabakitzeko eskubidea du EUSKALTELeK.
 - c) Zerbitzua edo ekipoa jartzerakoan ahalik eta eragozpen gutxien sortzen ahaleginduko da EUSKALTELeK, eta kalteren bat eginez gero, egindako kaltea konpontzeko konpromisoa hartzen du.Instalazioa egindakoa, BEZEROAK instalazioarekin bat datorrela adierazten duen agiria sinatuko du.
9. BEZEROAK EUSKALTELeKO langileei edo Euskaltelen enpresa laguntzaileetako langileei (behar bezala baimenduta eta enpresak identifikatuta egon behar dute) etxera sartzeko utziko die, besteak beste, BEZEROAK baldintza orokor hauetan agertzen diren betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko, instalazioen ikuskapenak, altak, bajak eta aldatetako egiteko, matxurak non dauden bilatzeko eta horiek konpontzeko. Halaber, langileek arazoan berri ahalik eta azkarren emango diote bezeroari. Utzitako materiala etxetik eraman behar bada ere –kontratu bukatu delako edo legeetan zein kontratuan horrela agertzen delako–, bezeroak etxera sartzeko utzi behar die Euskalteleko langileei.
10. Kontratatu den zerbitzuagatik indarrean dauden tarifak kobratuko dizkio EUSKALTELeK BEZEROARI. Tarifaren bat aldatuz gero, EUSKALTELeK horren berri emango dio bezeroari, indarrean sartu baino lehen eta modu egokian. Kontratu honekin batera, BEZEROAK zerbitzu horri dagozkion eta indarrean dauden tarifak agertzen diren orria jasoko du.
EUSKALTELeK –azalean agertzen diren ordainketa-baldintzen arabera– BEZEROAK zerbitzua jasotzeagatik ordaindu behar duen kopuruaren faktura egiteko, une bakoitzean indarrean dauden tarifak hartuko ditu kontuan. Indarrean dauden tarifak kasu bakoitzean legez aplikatu daitezkeen zergak gehituko zaizkie. EUSKALTELeKO fakturan zehatz-mehatz azalduko dira ordaindu behar den azken tarifaren osagai guztiak. BEZEROAK honako zenbateko hauek

ordaindu behar dizkio EUSKALTELeLi:

- Alta-kuota
- Hileko kuota finkoa.
- Terminal digitalaren alokairua.

BEZEROAK bi modu ditu ordainketa egiteko: bata, banku-helbideratzearen bidez, azalean adierazi duen bankuko kontuaren bidez (horretarako, kontu horretan EUSKALTELeLi sor dizkion zenbatekoak ordaintzeko besteko saldoa edukitzeko konpromisoa hartzen du), eta bestea, leihatilan ordainduz. Ordainketa BEZEROAK banku-kontua irekita duen banketxeak Euskaltelen jakinarazpena jasotzen duten egunean egin behar da; jakinarazpen horretan Bezeroak ordaindu beharrek diru-kopurua zehaztuko da. Ordainketa leihatilan eginez gero, BEZEROAK zordunketa-agiria etxean jasotzen duenetik astebeteko (7 egun) epean egin behar du.

BEZEROAK EUSKALTELeN lehen fakturarekin batera ordaindu behar du zerbitzuaren alta-kuota. Gainera, kontratatutako zerbitzuaren eta terminal digitalaren alokairuaren hileko kuota finkoak amaitutako aldiko ordainduko ditu.

11. BEZEROAK alta-kuota bat ordainduko dio EUSKALTELeLi kontratu hau sinatzen den unean. BEZEROAK baja ematea edo harpidetza ez berritzea erabakitzen badu, ezingo du zenbatekoa itzultzeko eskatu.
Zerbitzuan berriro alta emanez gero, BEZEROAK kuota bat ordainduko du berriro konektatzeagatik.
12. BEZEROAK zerbitzuak erabiltzeagatik EUSKALTELeLi ordaindu beharreko diru kopuruak zehaztutako egunean ordaindu ez badizkio, banketxeari egotzi ezinezko arrazoiak direla-eta, BEZEROAK berandutze-interesak ordaindu beharko ditu, konpromisoa ez betetzeagatik sor daitezkeen bestelako ondorioak alde batera utzi gabe.
Berandutze- interesa ordainketa egin behar zen egunetik sortuko da eta aipatutako diruaren legezko interesari ehuneko bi puntu gehituko zaizkio. Berandutze- interes bera aplikatuko da erreklamazio bat dela eta BEZEROAK kopururen bat berreskuratzea eskubidea duenean ere.
13. EUSKALTELeK zerbitzua bertan behera utz dezake, baldin eta BEZEROA zordunketa-agiria aurkeztu eta hogeie egun natural baino gehiago berandutzen bada; izan ere, zordunketa-agiriko zenbatekoa ez ordaintzeak zerbitzua etetea dakar.
Zerbitzua ezingo da jaiegunean edo jai bezperan eten.
Ordaindu behar duen zenbatekoa ordaindu eta ondorengo bi lanegunetan berrezarriko zaio zerbitzua EUSKALTELeKO harpidedunari. Zerbitzua berriz jartzeko ezarri den kuota ordaindu beharko du harpidedunak, ordainketa hori ez dagokiola berari egiaztatu ezean.
Zerbitzua bertan behera geratu eta hogeie egun naturalen barruan, eta aurrez harpidedunari zorra ordaintzeko hamar egun naturaleko epea eman eta gero, EUSKALTELeK kontratua hautsi eta harpidedunari baja eman ahal izango dio.
14. Terminal digitala alokairuan ematen dio EUSKALTELeK BEZEROARI. Gainerako materiala komodatu gisa doan uzten dio, kontratu hau amaitu arte erabili dezan. Alokairua zerbitzuan alta ematen den egun berean hasiko da eta EUSKALTELeN baja ematean amaituko da.
Terminal digitala alokatzeagatik, BEZEROAK kontratu honetan adierazitako zenbatekoa ordainduko dio EUSKALTELeLi; prezio hori alda dezake EUSKALTELeK, baina aplikatu baino hamabost egun lehenago jakinarazi behar dio BEZEROARI. Kontratu honetan ezarri den guztiari, ondasun higigarrien alokairua arautzen duen lege komuna aplikatuko zaio.
15. Zerbitzua behar bezala ez badabil edo matxuraren bat baldin badu, EUSKALTELeKin telefonoz harremanetan jartzea gomendatzen diogu BEZEROARI. Arazoa telefonoz konpondu ezin bada, EUSKALTELeK langileren bat edo homologatutako teknikairen bat bidaliko du bezeroaren etxera, matxura zerk eragin duen azter dezan.
Matxura BEZEROAK eragin ez badu, utzi zaion materiala doan ikuskatu, konpondu eta, beharrezkoa denean aldatuko zaio, eta BEZEROAK ez du ezer ordaindu behar izango.
Matxura BEZEROAREN errua bada, EUSKALTELeKO langileen joan-etorriek eta lanak sortzen dituzten kostuak, edo, dagokionean, ekipoa edo utzitako gainerrako materiala aldatzeagatik sortutakoak BEZEROAK ordainduko ditu. Ordainketak EUSKALTELeK ezarritako prezioen arabera egingo dira, eta, hala badagokio, BEZEROARI haien berri emango zaio.
Harpidetza bukatzean, arrazioa dena delakoa izanik ere, BEZEROAK EUSKALTELeK utzitako material guztia itzuli behar du; EUSKALTELeKO langileei edo Euskaltelen enpresa laguntzaileetako langileei eman behar die, edo baimendutako banatzaileen/instalatzaileen lokaletan utzi.
Jarritako epean EUSKALTELeK materiala jaso ez badu, BEZEROAK berriz jartzeak duen kostuaren kalte-ordaina ordaindu beharko dio EUSKALTELeLi, utzitako materiala behar baino luzeago edukitzeagatik.
16. EUSKALTELeK konpromisoa hartzen du kontratatutako zerbitzuaren iraunkortasuna, jarraipena eta kalitatea ziurtatzeko behar diren neurriak hartzeko. EUSKALTELeK programazioa aldatzeko eskubidea du. Iragarritako kanalak eta proposatutako zerbitzuaren edukiak –guztiak edo batzuk– kendu, ordeztu edo aldatu ditzake. EUSKALTELeK zerbitzua aldi batez eten dezake, kontratatutako kateak doitu behar badira. Aurreikusitako egoera guztiak aurrez jakinaraziko zaizkie bezeroei eta kontratatutako zerbitzuan ez dute inolako eraginik izango.

BEZEROak kontratatu duen zerbitzua gutxienez 3 egunez jarraian eten bada eta hurrengo paragrafoan azaltzen den egoeraren bat gertatu ez bada, EUSKALTELeK bezeroa konpentsatzeko konpromisoa hartzen du, eta, ordain moduan, jaso ez duen kontratatutako zerbitzuaren balioak emango dio zerbitzutan, betiere, BEZEROAK idatziz eskatu baldin badu.

EUSKALTELeK ez da erantzule izango kontratatutako zerbitzua honako kasuetan eten bada:

- EUSKALTELeK utzitako ekipoa BEZEROAK gaizki edo modu desegokian erabili dituelako eten bada.
- Ezinbestekoren bat dela eta –ekaitza, eguraldiaren eragina, etab.– eten bada.
- Administrazioak edo epaitegiek emandako erabakiren batek EUSKALTELeK eragin duelako eten bada.
- Noizbehinkako 10 minutu inguruko etenaldiengatik gertatu bada.
- Bigarren paragrafoan agertzen den egoeraren bategatik eten bada.
- Hirugarren pertsonen ekintzek eragin badute.

17. Kontratu honen iraupena mugagabea da eta ondoren agertzen diren egoerengatik deuseztatuko da:

- a) Zerbitzu hori emateko EUSKALTELeK gaitzen duen titulua iraungi bada. Hori gertatuz gero, BEZEROAK ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
- b) Aldeetako batek kontratu honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzen ez baditu, beste aldeak hauts dezake.
- c) BEZEROAK hala eskatu duelako. Gutxienez kontratua bukatu baino hamabost egun lehenago eta era frogagarrian adieraziko du.
- d) BEZEROA etxetik aldatu bada eta EUSKALTELeK etxebizitza berria zerbitzua emateko sarerik ez badu.
- e) Kontratuaren azalean jartzeko Bezeroak emandako datuak ez zehatzak ez direlako.

BEZEROAK kontratua jaso eta 10 eguneko epean behar den bezala sinatuta EUSKALTELeK bidali ez badio, EUSKALTELeK kontratu horri uko egin eta balio gabetzeko eskubidea du.

Edonola ere, nahiz eta kontratu hau hautsi edo ukatu, BEZEROAK ordaindu egin beharko ditu EUSKALTELeK hitzartutako ordainketa-betebeharrak; hau da, hautsi edo ukatu den kontratuan agertzen den zerbitzua deskonektatu arte BEZEROAK jaso dituen zerbitzuaren betebeharrak ordaindu egin beharko ditu, utzi zaion materialaren balioa barne.

Kontratu haustean utzitako materiala itzuli ez bada, EUSKALTELeK eskubidea izango du material hori berreskuratzeko behar adina ekintza egiteko –besteak beste, ekintza judizialak, zibilak edo penalak– eta goiko 15.5 baldintzan aurreikusten den kalte-ordaina kobratzeko.

18. Bezeroak onartzen du EUSKALTELeK eman diola EUSKALTELeK berak sortutako datu pertsonalen fitxategi automatizatuaren berri, eta datuok erabiltzeko baimena eman dio bien artean dagoen kontratuzko harremana mantendu eta kudeatzeko, bai eta EUSKALTELeK zerbitzu eta produktuen informazio-, trebakuntza- eta merkataritza- eta publizitate-lanetarako ere. Halaber, bezeroak onartzen du jakinarazi diotela datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duela EUSKALTELeK egoitza nagusian edo hark adierazten dion tokian eta EUSKALTELeK dela fitxategiaren arduraduna eta eskatutako datu pertsonalei erantzuteko betebeharra duela. Eskatutako datuak beharrezkoak dira kontratua egiteko.

EUSKALTELeK datu pertsonalak sekretuan gordetzeko konpromisoa hartzen du, eta datuok aldatu, galdu eta inork baimenik gabe erabil ez ditzan edo inor datuotara baimenik gabe sar ez dadin beharrezko neurriak hartuko ditu, uneoro teknologiaren egoera kontuan izanda.

Bezeroak baimena ematen du zerbitzua kontratatuzko EUSKALTELeK lan egiten duen banatzaileen edo agenteen kanalarik fitxategi automatizatuaren datu pertsonalak uzteko, lehenengo paragrafoan zehaztutako helbururako. BEZEROAK berriaz kontrakoa esaten ez badu, EUSKALTELeK datuok bere taldeko erakundeei utzi ahal izango dizkie, interesgarria iruditzen zaien informazioa bidaltzeko.

Horrez gain, BEZEROAK bere datu pertsonalak erabiltzeko baimena ematen du EUSKALTELeK emateko asmoa duen zerbitzuen eta produktuen promozio komertziala egiteko helburuarekin. Baimena bezeroak berriaz indargabetu arte indarrean egongo da. Hilabeteko epean –kontratu hau sinatzen den egunetik kontatzen hasita– BEZEROAK gai honi buruz ezer esaten ez badu, baimena emantzat hartuko da.

19. BEZEROAK zerbitzuaren funtzionamendua eta kalitatea, prezioen aplikazioa, fakturazioa edo zerbitzua ematearekin lotuta sor daitekeen beste edozein arazori buruzko erreklamazioak aurkez diezazkioke EUSKALTELeK. Erreklamazio horiek gertaera horren berri izan eta hilabeteko epearen barruan aurkeztu behar dira.

Erreklamazioa egin eta hilabeteko epean BEZEROAK gustuko erantzunik jaso ez badu, erreklamazioa Telekomunikazio eta Informazioaren Gizarteko Estatu Idazkaritzari egin diezaiolke.

20. BEZEROAK EUSKALTELeK kontratu honetako telekomunikazio-zerbitzuak emateko kontratua egiten du, une bakoitzean indarrean dagoen Espainiako araudiari lotuta. EUSKALTELeK kontratua alda dezake, indarrean dagoen legerian ezarritakoa betez eta aurrez BEZEROARI idatziz jakinarazita. BEZEROA aldaketarekin ados ez badago, EUSKALTELeK jakinaraz diezaiolke –jakinarazpena

jaso eta hamabost eguneko epearen barruan– kontratua hautsi egin nahi duela. Epe hori igaro bada eta EUSKALTELeK jakinarazpenik jaso ez badu, BEZEROAK aldaketak onartu dituela ulertuko da.